

# PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

13-9-30 8.ALEA



**Danena eta Udala  
talde berean, zelai  
berriaren alde**

**Festak  
argazkitan**

2. ORR. >>

**Bidegorri  
sarea**

4 ORR. >>

**Lladó eta  
Zizurkil**

10. ORR. >>

6. ORR. >>



# Festak, giro bikainean

Igaro berri dira Zizurkilgo bi festa nagusiak, Zizurkil goiko eta beheko jaiak. Bietan ere giro aparta izan da nagusi, festa batzordeek egindako lanaren emaitza. Argazki bidez jaso ditugu hainbat une.



Oilasko biltzen gazte mordo atera zen aurten ere.



Mozorro gauak eman zuen nahiko zeresan.



Jendetza elkartu zen herri bazkarian.



Lehen aldiz egin zen lorez apaindutako atari eta balkoi lehiaketa.



Danborrada izan zen Elbarrenako festen lehen egunean.



Aurten ere giro bikaina izan zen herritarren dantzan.

## ALBISTEA

# Hondakinen ordenantza indarrean da

Lehen aldiz, Zizurkilek etxeko hondakinen kudeaketa arautzen duen ordenantza du. Isunak aurrikusten ditu betetzen ez duenarentzat.

“Orain arte Zizurkilen ez da egon etxeko eta merkataritza-hondakinak bildu eta tratatzeko ordenantzarik. Egon den ordenantza bakarra, 2010eko azaroaren 15ean Mankomunitate mailan, industria-hondakin ez-arriskutsuen ordenantza izan da”, azaldu dute Udaleko ingurumen zerbitzutik. Ordenantzak zehazten du bilketaren eskumena berari dagokiola: “(...) mankomunitateari dagokio Ordenantza honetan ezarritako moduan etxe, merkataritza eta zerbitzuen sektorean sortutako etxeko hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzeko zerbitzua ematea, 22/2011 Legearen 1.3. artikuluan xedatutakoaren arabera(...)”.

### Bakoitzak bereen ardura

Ordenantzak argi dio, “(...) hondakinak sortzen edo edukitzen dituztenek, ordenantza honetan zehazten diren baldintzetan jarriko dituzte Hondakinen Kudeatzailearen esku, hau da, Tolosaldeko Mankomunitatearen esku (...)”. Honela, “(...) zerbitzua-aren erabiltzaileak derrigor-tuta daude hondakinak berezita,

«Birziklatze mailaren arabera, tarifa murriztea bultzatuko da»

oso larriak izan litezkeenak. 90 eurotik 450era edo kasurik larrienetan hortik gora ere joan litezke isunak.

### Tasak murrizteko aukera

Ordenantzak zehazten du Udalek tasa ezartzerakoan “(...) tarifaren diskriminazio positiboaren printzipioa, hau da, tarifa murriztea bultzatuko da, berrerabiltzeak, birziklatzeak eta konpostatzeak azken tratamenduaren arrian lortutako mailaren arabera(...)”.



### Belar eta sastrakentzat gunea prest

Badira aste batzuk belar, sastraka, arbusto, belar eta kima-keta hondakinak botatzeko behin behineko gunea prest dagoenetik. Ernio Bidean, Danena ondoko baratzen gunean dago kokatua, errepide-tik sartzeko moduan. “Behin behineko gunea egin dugu, epe motzean egokitu duguna”, adierazi du Aitor Sarasua ingurumen zinegotziak.

## En vigor la ordenanza sobre residuos

Zizurkil dispone por primera vez de una ordenanza sobre residuos domésticos. “Hasta ahora la única ordenanza que había era para la industria”, remarcan desde el ayuntamiento. Dicha ordenanza señala que “(...) corresponde a la Mancomunidad la prestación del servicio de recogida, el transporte y el tratamiento de los residuos domésticos generados en los hogares (...)”.

### Las normas

“(...) las personas produc-

toras o poseedoras de los residuos, deberán ponerlos en las condiciones que se determinan en esta ordenanza (...)”, afirma el texto. Se remarcan las normas de uso “(...) las personas usuarias del servicio están obligadas a entregar los residuos de forma separada, esto es, separados según su tipo y naturaleza. Se prohíbe el abandono, vertido o eliminación incontrolada de residuos y toda mezcla de los mismos que dificulte su gestión. Las personas usuarias

están obligadas a depositarlos con arreglo al calendario (...)”

También se establecen sanciones para infracciones, desde 90 euros hasta 450 euros o más para las infracciones más graves. Para finalizar, la ordenanza habilita “(...) el principio de discriminación positiva de la tarifa, potenciando una reducción de la tarifa en función del grado de reutilización, reciclaje y compostaje alcanzado frente a la eliminación (...)”.



ERREPORTAIA

# Elbarrena eta Adunako poligonoa lotzen dituen **bidegorria** zabalik

Elbarrenako eraberritze lanak bide onetik

Hainbat eraberritze lan egiten ari dira azken hilabeteetan Elbarrenan. Nagusia plaza berriarena da. Urte bukaerarako lanak amaitzea espero da. Teodosio eraikinaren eraisketa izango da azken ekintza.

Plazako hiritartze lanez gain, Kultur Etxeko igogailuarentzako oinarria eta zuloa egingo dituzte. Lan honetarako ezinbestekoa izango da Atxulondo Kultur Etxea hilabete inguru ixtea. Epe honetan, kultur etxeko erabiltzaileei beste alternatiba bat eskainiko zaie, eta Udaleko langileak arduratuko dira hau behar bezala komunikatzeaz. Obrak poliki doaz, eta herriaren erdian izanik hainbat traba sortzen ari dira. Udaletik ordea, pazientzia eskatu nahi dute, plaza berriarekin denok irabaziko baitugu.

Plaza guneaz gain, Aizpuruako aparkaleku berriko lanak amaitu dira, inguru horri beste itxura bat emanez. Azken neurri gisa pintaketa lanak egin dira, eta berdin Ugare auzoko Itxaropena etxearen ondoko zabalgunean ere, inguru horretako herritarrek egindako eskariari erantzunez. "Legealdi honetan, helburu nagusietako bat herriko bi erdiguneak zizurkildarrentzat atseginagoak egitea zen, ekipamendu gehiago ezarri benetan erdigune izan daitezen, eta horretan ari gara", azaldu du Joxe Mari Luengo alkateak.

Udalaren helburua urte amaierarako Zizurkilgo bidegorri sarea osatzea da. Horretarako, Zubimusutik plazarainoko bidea egitea besterik ez da falta.

Aizpuru ondoko aparkaleku berritik hasi eta tren-bidearen zentzuari jarraituz Oria ibaiarekin topo egin arteko bizikleta bidea erabilgarri dago jada. Era honetan, Zizurkil Adunako poligonoarekin lotuta geratu da oinez edo bizikletaz eroso joateko. Hurrengo pausoa, bidegorri hau, Zubimusurekin lotzea izango da. Lan hauek datozen asteetan egitea espero da. Falta den zatia, zabaldu berri den bidetik plazarainokoa, Joxe Arregin egiten ari diren hiritartze lanak amaitzean gauzatuko da, herri-guneko bideak Asteasutik datorren bidegorriarekin konektatuz. Era honetan, Zizurkilgo bizikleta bideen sarea osaturik geratuko da. Guztira, 1.735 metroko luzeera izango du.

## Zubimusu-Plaza zatia

Joxe Arregi Plazako hiritartze lanen barruan Ernio

Bidea gurutzatzeko oinezko eta bizikletentzako pasabidea egingo da. Bi puntuak lotuko dituen bidea berriz, Ernio Bidean gaur egun dauden bi espaloietatik bat erabiliz egingo da. Oinezkoek gutxien erabiltzen dutena hautatu da, aldi berean zabalena delako. Batz bestea 3,6 metroko zabalera izango du, Aizpuru pareraino. Puntu honetan, Oria paper fabrikaren irteeran alegia, bizikletentzako pasabidea egokituko da, eta hemendik Zubimusura arteko tartean, autoak noranzko batean joaten direla baliatuz, 4,7 metro autoentzat utzi eta 2,8 metroko bizikleta bidea egokituko da galtzadan. Bidea autoen galtzadatik bereizi eta babesteko kautxozko elementu etzanak jarriko dira, banda islatzaileak ere ondo ikusi dadin.

Amaitzeko, Zubimusun amaituko den bidea Ugare



auzoko bizikleta bidearekin lotuko da, konexio hau oinezkoen espaloia erabiliz egingo delarik.

Zizurkilgo bizikleta sareak izango dituen 1.735 metroatik 480 metro bizikleta bidea izango da eta 1.255 metro luzean erabilera bateratuko bidegorria izango da, non oinezkoek lehenetsuna izango duten.

## Ya está abierto el tramo que une Elbarrena con el polígono de Aduna

El nuevo tramo de la red de vías para peatones y bicicletas, comienza al lado de la Papelera Oria y termina al llegar al río, uniendo así el polígono de Aduna con Zizurkil. Con este nuevo tramo, en lo

que respecta al municipio de Zizurkil, sólo falta el tramo Zubimusu-Plaza, que según el ayuntamiento se realizará antes del fin de año, coincidiendo con el fin de las obras de la plaza. El carril que unirá

estos dos puntos se acondicionará a lo largo de una de las aceras que trascurren por Ernio Bidea. De este modo, se completará la red de bidegorris de Zizurkil, que tendrá 1.735 metros de largo.



## ERREPORTAIA

# Belar artifizialeko zelaia, inoiz baino gertuago

Udalak eta Danena Futbol Elkar-teak hitzarmena sinatu dute. Bertan, belar naturaleko zelaia aldatu eta belar artifizialeko zelaia egiteko nahia agertu dute. Udalak, lanok 2014ko ekaina-abuztuan egiteko konpromisoa hartu du.

Aspaldiko urteetako eskaera da belar artifizialeko zelaiarena. Izan ere, Danena Amarotz-eko egituraren aitzinaren neska mutilek ezin dute futbolekin baldintza onetan jokatu. "Euria egiten duenean ezin dugu zelaiaren eremuan entrenatu, eta noski, partidu guztiak ere ezin ditugu jokatu. Urtero klub ezberdinekin negoziatzen ibili behar izaten dugu etxeko partiduak jokatzeko zelaiak lortze aldera. Eguraldiaren arabera, hiru herritan sakabanatutako bost gune ezberdin ditugu entrenatzeko. Horretaz gain, belar naturalak mantenu kostu handia suposatzen digu: Belarra moztu behar da, hondarra ekarri behar da.... Era honetan, zelai artifizialak aurrezpen handia ekarriko lituzke eta egun ditugun arazo

guztiak konponduko lituzke", azaldu du Joseba Iturria, Danena-Amarotz proiektuko arduradunak.

Joseba 2010ean heldu zen Danenara Amarotz-eko futbol eskolarekin batera ondutako proiektu baten haritik: "Proiektu honek helburu argi bat zuen: Eskualdeko neska mutiko guztiei futbolekin aritzeko aukera ematea. Horretarako, eskualdean belar artifizialeko zelai bat eskatzen genuen". Iturriaren hitzetan, Gipuzkoako gainerako eskualdeetan 8.000-12.000 biztanleko belar artifizialeko futbol-zelai bat dago. Aldiz, Tolosaldean 45.000 biztanle daude eta futbol-zelai artifizial bakarra.

**Aurrekontu xumea**  
Gauzak honela, Zizurkilgo

*«Asteburuetako partiduek jendea ekarriko dute zelaira eta horrek bizia emango dio plaza inguruari»*

Udalak Danenan belar artifiziala jartzeko nahikoa arrazoi badagoela ikusten du, eta helburu hori lortze aldera sinatu du hitzarmena herriko futbol elkartearekin. "130 haurrek jokatzeko dute egun Danenan. Jendea musutruk lan handia egiten ari da, ordu asko pasatzen dituzte umeekin, eta gutxienez, lan hori baldintza onetan egitea merezi dute", adierazi du Joxe Mari Luengo alkateak. Era berean, gaineratu du, futbol eskolarentzat ez ezik herriarentzat ere onura handia ekarriko duela zelai berriak: "Asteburuetako partiduek jendea ekarriko dute zelaira, eta horrek bizia emango dio plaza inguruari; berdin entrenamenduetako joan-etorriek ere". Guzti hau aurrekontu xume batekin egingo dutela azpimarratu du alkateak. "Guztira 300.000 euro inguruko aurrekontua du proiektuak. Aldundiak, Gipuzkoako Futbol Federazioak eta

Udalak finantzatzea da gure helburua, baikoitzak herena jarritz". Aurrekontua xumea dela diote, beste herrietan egiten dituzten inbertsioen ondoan baxua delako. "Ez da anbizio handiko proiektua. Belar artifiziala jarri, eta aldarek zein argiteria berritzera mugatzen da. Beste herrietan estalitako armailak eta bestelako ekipamenduak egiten dituzte", azaldu du Iturriak. Argi eta garbi, proiektua neska mutilei gutxienez baldintzak bermatzera bideratuta dago. "Umeek zelaiaren lasai jokatu ahal izango dute, baina begira dauden gurasoek busti egin beharko dute", azaldu du umoretsu. Bizi dugun egoera ekonomiko estuan hobekien egokitzen den proiektua aurrekontu dutela defendatu dute biek hala biek.

## 2014an egiteko konpromisoa

Hitzarmeneko ezaugarriak azpimarragarriena berehalakotasuna da. Bertan, Udalak, ikasturte honen amaieran belar artifiziala jartzeko lanak egiteko konpromisoa hartu du. Danena Futbol Elkartea, berriz, urtero Udaletik jasotzen duen diru-laguntzaren portzentaia bati uko egiteko

*«Proiektua Aldundiak, Gipuzkoako Futbol Federazioak eta Udalak finantzatzea da gure asmoa»*



## Danena futbol eskola, futbolekin ikasi eta gozatzeko lekua

Ikasturteko ikasturtera gorantz doa Danenara futbolekin jokatzera etortzen den ume kopurua. Egun 135 neska mutiko dituzte. Gazteenak 2005ean jaiotakoak dira. Beraz, 7 urtetik gorako orok du futbolekin gozatzeko aukera. Alebin mailako 2 talde, benjamín eta infantil mailetan ere bina, eta kadete mailako talde bat dute egun. Iturriak adierazi duenez, asmoa hurrengo urterako beste bi talde sortzea da. Horretaz gain, nesken egitura ere osatu nahi dute, Aiztondon, oraindik ez baitago nesken talderik. Futbol eskola izaki, futbolekin erakustea eta futbolekin gozatea da lehentasuna. Denek dute lekua Danenan. Eta denek jokatzeko dutela ziurtatzeko, gutxienez lau partiduz behin jokalarik guztiak titular izateko muga jarria dute.

prest agertzen da, Udalak beregain hartutako proiektuaren zatia finantzatzen laguntzeko. "Asko eskertzen dugu Udala egiten ari den ahalegina. Horregatik, Danena ere prest dago bere aldetik jar dezakeen guztia jartzeko", gehitu du.

Esperantza eta ilusioa nabari da Danenan eta Udalean. Aspaldidanik datorren eskarari erantzuteko talde berean jokatzeko ari dira orain. Eskolaren biziraupenerako ezinbestekoa den belar artifizialeko zelai inoiz baino gertuago dago: 2014an hain zuzen.

## El campo de hierba artificial más cerca que nunca

El ayuntamiento de Zizurkil y el Danena Kirol Elkartea han firmado un convenio en el que ambos se comprometen a cambiar el campo de fútbol de hierba natural para acondicionar uno nuevo de hierba artificial. Además, se recoge el compromiso de que el cambio de césped, junto a las obras de renovación de los vestuarios y el sistema de alumbrado, se realice entre junio y agosto del 2014. Joseba Iturria, responsable del proyecto Danena-Ama-

rotz, defiende que el campo de hierba artificial es la solución de todos los problemas que tiene la estructura Danena-Amarotz hoy en día. "Cuando llueve no podemos entrenar en nuestro campo y todos los años tenemos que negociar con diferentes clubes o ayuntamientos para que nos dejen jugar partidos en su campo. Sucede igual con los entrenamientos. Usamos 5 campos en tres pueblos diferentes para entrenar", aclara. El alcalde Jose Mari Luengo indica que

"los entrenadores y los responsables de la escuela de fútbol trabajan altruistamente y por lo menos se merecen trabajar en unas mínimas condiciones. Además, el nuevo campo dará vida a la nueva Plaza del pueblo". Otro punto para defender el proyecto del césped artificial, es que Tolosaldea es la única comarca de Gipuzkoa que tiene solamente un campo de fútbol de hierba artificial por 45.000 habitantes (6 de las 8 restantes tienen 1 por 8.000 / 12.000 ha-

bitantes). De este modo, el objetivo es financiar el proyecto entre la Federación Gipuzcoana de Fútbol, la Diputación Foral y el ayuntamiento, aportando cada uno de ellos el tercio del presupuesto, que será 300.000 euros. Danena, consciente del esfuerzo económico que está realizando el ayuntamiento, está dispuesto a rechazar parte de su subvención municipal para utilizarlo en la financiación del proyecto. Ambos han acordado la postura del otro.



## KRONIKA

# Loatzo musika eskola, hamaika urte musikaz hezten

76 zizurkildar ari dira ikasturte honetan Loatzo musika eskolako klaseak hartzen. Bere lana hobeto ezagutu nahi izan du Plazaberrik.

2002ko ikasturte hasieran ikusi zuen argia Loatzo musika eskolak. Anoeta eta Villabonako musika eskolek elkarlanean hasitako proiektuari, Irura, Aduna, Alegi, Altzo, Ibarra eta Zizurkil gehitu zitzaizkion urte horretan. "Helburu argia zuen, hezkuntza musikal oso bat bermatzea" adierazi du Alaitz Ormazabalek, Zizurkilgo kultura zinegotziak eta Udalak Loatzon duen ordezkariak.

**Urtez urte gehiago**  
Gaur egun Zizurkil-

go 76 haur eta heldu dabilta Loatzon, denera 600 ikasletik gora. "Urtez urte, gora egiten ari da matrikula. Goian bezala behean ematen dira klaseak: Iriarte eta Atxulondo kultur etxeetan eta P.M. Otaño ikastetxean", azaldu du Ormazabalek. Mota guztietako instrumentuak ikasteko aukera dago. "Aurten berrikuntza bezala, kantua eskaini da Arantxa Irazustarekin". Adinaren arabera 3 maila dituzte banatuta. "4 eta 7 urte bitartean musika tailerra deitzen den proiektua dago, musika munduan sartzeko modu bat. 8 eta 11 urte bitartean, musika hizkuntza eta abesbatza ematen dituzte eta horrez gain, instrumentu bat aukeratzen du ikasle bakoitzak. 12 urtetik gora berriz, instrumentua lantzen jarraitzen dute eta musika eskolako beste kideekin batera

talde instrumentalak osatzen dituzte, instrumentu ezberdinak elkarrekin uztartuz".

Ikasitakoa erakustea ere badago Loatzoren helburuen artean. "Zizurkilen esaterako kontzertuak ematen dira Santa Xexili egunean (musikarien patroia), gabonetan beheko elizan, ikasturte amaieran goiko elizan, Maiatza Saltsan eta festen barnean emanaldi bana egin ohi da eta Iñauterietako txarangaren ardura ere badu azken urteetan".

#### Informazioa eskura

Loatzorekiko konpromisoari eusteko asmoa azaldu du Ormazabalek. "Udalari ahalegina eskatzen dio horrelako musika eskola publiko bati eusteak, baina uste dugu ematen den zerbitzua garrantzitsua dela eta ez gure asmoa".

Musika eskolaren inguruko edozein argibide nahi duenak 943.69.26.19 telefonora jo dezake, "Herri bakoitzak koordinatzaile bat du, Aitor Lasak egiten ditu Zizurkilgo koordinatzaile lanak", azaldu du Ormazabalek. Musika doinuak herrian zabaltzeko prest da beraz, ikasturte honetan ere Loatzo musika eskola.

## ALBISTEA

# Urriaren 13an Zizurkilgo XVI. Azoka Berezia

Emakume baseritarren garai bateko bizitza islatuko duen argazki zaharren erakusketa izango da Iriarte Kultur Etxean.

Krisiak krisi, orain arteko postu kopuruari eutsiko diote antolatzaileek. Artisau eta elikagai postuen artean, 50 stand inguru izango dira frontoian eta Teodoro Hernandorena kalean. Horien artean egongo dira herriko artisauak ere. Eta nola ez, Zizurkilgo baseritarrek euren baratzetako onena ekarriko dute erakus-mahaietara. Herriko ekoizleen postu onenak jasoko du eguerdiko 13:00etan Zizurkilgo Azoka Bereziko Posturik Onenaren Saria. Ohi bezala, autobusa ibiliko da doan Elbarrenatik Zizurkil

Gora bidean. Zaldua pareko biribilgunean eta Zubiaurretxoko bidegurutzean egingo du geldialdia.

#### Argazki Zaharren Erakusketa

Iaz Baserriko Argia Eskulturaren X. urteurrena izaki, Gorririren eskulturaren inguruan egin zitzaizen omenaldia emakume baseritarrei, EBEL-ekin harremanak ber hartuta. Aurten, beste era batera ere gorraipatu nahi izan du Udalak emakumeen lana. Duela 8 bat urte Maialen Azkue herri-tarrak bildutako argazki zaha-



retatik emakume baseritarrek protagonistak direnak aukeratu eta erakusketa bat jarriko da. Helburua, emakume baseritarrek XX.

mendeko lehen erdian izan zuten bizimodua erakustea da. Erakusketa zabalik egongo da egun osoan zehar.

XVI. edizioaren beste berrikuntza arratsaldeko eskaintza da. "Xuxurlariak" kale antzerkia eskainiko du Ados taldeak. Iaztik aldatuko ez dena bazkaria da. Zimiterioan izango da arratsaldeko 14:30etatik aurrera. Bertan bazkaldu nahi duenak txartela eskuratu beharko du 20 euroren truke ohiko salmentan puntuetan urriaren 9a baino lehen.

Bertako postuetan erositako artisau eta baseritarrei laguntzeko deia egiten du Zizurkilgo Udalak. Gozatu azoka eguna!

## 13 de Octubre, Feria Especial de Zizurkil

Como todos los años, el casco urbano de Zizurkil Goia se llenará de puestos de artesanos y baseritarras. Entre ellos estarán los productores y las productoras de Zizurkil que competirán por el premio "Baserriko Argia" al mejor puesto. Como novedad el ayuntamiento presentará una

exposición de fotografías antiguas, que muestran la vida de las mujeres baseritarras en la primera parte del siglo XX. Por la tarde, la compañía de teatro Ados ofrecerá su obra "Xuxurlariak" en las calles del pueblo. Lo que no cambia desde las ediciones pasadas es la comida

popular que se celebrará en el Zimiterio. Quien quiera acudir deberá comprar los tickets antes del 9 de octubre en los puntos de venta habituales. Cada 5 minutos saldrá un autobús de Elbarrena que efectuará parada en Zaldua y en el cruce de Zubiarretxo.



## Loatzo musika eskola, 11 años de educación musical

En septiembre del 2002 comenzó su andadura Loatzo musika eskola, con el apoyo de los ayuntamientos de Anoeta, Irura, Altzo, Ibarra, Aduna, Alegi, Villabona y Zizurkil. "El objetivo era promover una educación musical integral", explica Alaitz Orma-

zabal, la concejala de cultura de Zizurkil.

Hoy en día, 76 zizurkildarras están inscritos en Loatzo, que en total cuenta con 600 alumnos. "En Zizurkil, cada año crece el número de matriculados. Las clases se imparten tanto en Zizurkil Goia como en El-

barrena, en las casas de cultura y en la escuela P.M. Otaño". La variedad de instrumentos que se ofertan es muy amplia. "Este año, por primera vez, se han ofrecido clases de canto, con Arantxa Irazusta". Más información, en el teléfono 943.69.26.19.



## ERREPORTAIA

# Lladó eta Zizurkil, bi naziotako anaiak

Joan den Irailaren 13 eta 15 arteko asteburua ez ahazteko modukoa izan da Zizurkildik Lladó (Girona) herrira joateko autobusa hartzera animatu ziren zizurkildarrentzat. Senidetzea instituzioez haratago, herritarren artera zabaldu zen.

Maiatzean hasi zen Lladó eta Zizurkilen arteko harremana. Lladoko herritarrek Maiatza Saltsanen baitako ekitaldietan parte hartu zuten, zehatz esateko aurten Zizurkilen egin zen Aiztondo eta Segundo Montes-en arteko topaketetan. Fanfarria, erraldoi, dantza eta musikarekin etorri ziren herrira, baina ekitaldi horretaz haratago, bi herrietako Udal eta herritarren arteko harremanari ekin zitzaion. Horren ondorio da irailaren 14an gauzatu zen senidetzea.

## Harrera paregabea

Ostiral gauean iritsi zen Lladó-ra Zizurkildik irtendako autobusa. Guztira 55 bat zizurkildar hurbildu ziren Gironako herri txikira. Eurak iristerako, harrera beroa prestatu zuten kataluniarrek. Sardana dantza tipikoa eskaini zieten, kontzertu akustiko bat ere izan zen eta nola ez, jan-edana. Larunbatean, goizeko 11etan sinatu zen ofizialki senidetze akta. Lladóko udaletxeko patioa bikain apaindu zuten okasiorako. Zizurkildarrek aginte



makila eman zioten Lladóko alkateari eta agurra ere eskaini zieten bertaratutako hamarnaka herritarri. Ondoren Zizurkilgo 20 gaztek herri kirol erakustaldia egin zuten: Lasto altxatzea, aizkora, harri jasotzea, trontza, ingudea, txingak... Hamaika proba egin zituzten Ziotza kirol elkarrekin eta Txepetxa Gazte asanbladak elkarrekin. Azalpenak gainera, euskaraz eta katalanez eskaini zituzten.

Ondoren, Zizurkil eta Lladó-ko alkateek senidetzea azaltzen duen plaka bistaratu zuten. Arratsaldeko ordu biak inguruan bi herrietako

biztanleak bazkaltzera bidu ziren kiroldegira, eta bertako habanerez gain, ez zen falta izan trikiti doinu eta euskal kanturik. Gauean Ampurda haran osoa ikusten zen gaztelu eder batean afaldu zuten bi herrietako biztanleek. Hurrengo egunean berri, Gazta feria zen Lladón, eta bertan erosketa batzuk eginda hartu zuten itzulerako bidea zizurkildarrek. Senidetze instituzionalaz haratago, herritarren arteko harremanak nagusitu ziren, ziur, aurrerantzean jarraipena izango dutenak. Moltes gràcies Lladó!



Senidetze akta sinatu zen uea.



Aureskua eskaini zuten zizurkildarrek.



Bi herrietako alkateek bistaratu zuten senidetze plaka.



Zizurkilgo gazteek egindako herri kirolek harridura eragin zuten.



Bi herrietako biztanleak bazkaritan elkartu ziren.



Zizurkildik joandako koadrila bikaina.

## Zizurkil y Lladó, hermanos de dos naciones

El fin de semana del 13 al 15 de septiembre quedará en la memoria de los y las zizurkildarres que se animaron a visitar Lladó (Girona). Más de medio centenar, la mayoría jóvenes, fueron los y las representantes de Zizurkil.

La relación entre los dos pueblos, comenzó en mayo en los actos de Maiatza saltsan, y se

ha institucionalizado este fin de semana con la firma del acta de hermanamiento. Pero, sobre todo, fue un intercambio de culturas, tradiciones y una unión entre pueblos de dos naciones. Los y las zizurkildarres hicieron una demostración de Herri Kirolak, y también se animaron con la trikitiba y los "euskal dantzak".



# AITZIBER IBARBIA

## “Ez nau erakartzen beste zortzimilako bat igotzeak”

Munduaren gailurretik, munduko mendietan lasterka egitera

### Nondik datorkizu kirola egiteko harra?

Ez dakit ziur. Gogoratzen naiz Danena-ko atletismo taldean hasi nintzela 9 urterekin. Hasieran eskolatik sekulako ume pilak eman genuen izena, ondoren lauk edo jarraituko genuen aurrera.

### Oro har familia osoa zarete kirolzale...

Bai, anai-arrebek denek egiten dugu kirola. Eta ez da gurasoekin ibili garelako kirola egiten baina geneetan zerbait egongo zen, aita bera lasterka ibilia da, biraitona “Txikito de Aia” fama-tua genuen...

### Hasieran lasterka, gero alpinismoan, eta azken urteetan mendi lasterketen munduan zabilta. Nola gogoratzen duzu etapa bakoitza?

Hasiera jolas bat bezala, noski. Ondo pasatzea zen kontua. Unibertsitate garaian, ihesbidea bihurtu zen

lasterka egitea, ikasketekin une batez ahazteko. Alpinismoa etorri zen ondoren, esperimentazio garaia izan zela esango nuke, asko ikasi genuen, bidaiatu genuen... Gaur egun berriz, mendi lasterkari moduan, inoiz baino serioago ari naiz lehiatzen.

### G II-a igo zenutela urte batzuk igaro dira, nola ikusten duzu orain mundu hori?

Bidaia bera berezia da, elkarbizitza handia eskatzen duen ekimena da, jendea sakon ezagutzeko aukera ematen duena... Baina, argi esan nahi dut, niri behintzat ez nauela erakartzen berriz zortzimilako bat egiteak. Ordu asko geldirik eta zain egin behar dituzu, oso poetikoa ematen du baina fisikoa gain, psikologikoki oso nekagarria da. Hala ere, alpinismoarena, garai oso polita izan zen. Mendiak igotzen pixkanaka hasita iritsi ginen zortzimilakoraino, eta bidean asko ikasi genuen.

### Zortzimilakoaren ostean, seme alabak etorri ziren, eta azken urteetan mendi lasterketen munduan sartu zara bete betean. Aspalditik zenituen begiz jota?

Ez, orain urte batzuk arte soilik Loatzoko igoera probatu izan nuen. Esango nuke niri mendi martxetatik etorri zaidala mendi lasterketan hasteko bidea, oso lehiakorra naiz eta hor niretzako aukera ikusi nuen.

### Aurtengo denboraldia nola baloratuko zenuke?

Denboraldi hasieran sinatuko nuen egin dudana, baina egia da, arantza geratu zaidala, martxoa-apirilean oso forma ona lortu nuelako, hainbat lasterketa irabazi nituen eta orduan gehixeago egin nezakeela iruditu zitzaidan. Azkenean ordea, lesioak eta... nahi dudana guztia ezin izan dut lortu. Lasterketa batekin gertaketotan, Italian munduko proba batean egin nuen

hirugarren postuarekin gertatuko nintzateke, horrelako mailako jendearekin puntan ibiltzea izugarria izan zen..

### Eta aurrera begira zer?

Datorren urtean ere eskal selekzioan jarraitzeko aukera izango dut, eta saiatuko naiz ahal den ondoena egiten. Momentuz behintzat jarraituko dut.

### Esaiguzu...

**Zizurkilgo txoko kuttun bat:** Ezkaltzuko gaina, Zizurkilgo txokorik politenetakoa.

**Herriko pertsonaia bat:** Jexuxa Jauregi, beste hainbat moduan isilik hamaila lan egin zuen emakume baserritarra.

**Zer sumatzen duzu faltan Zizurkilgoan?** Zizurkilgo Goian etxeak.

**Eta zer soberan?** AHT-ren obrak.

# B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria  
Herritarren Parte Hartze  
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:  
SS-1118-2011

Harremanetarako:  
plazaberri.zizurkil@gmail.com  
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,  
Teodoro Hernandorena 6,  
20.159 Zizurkil.  
Tel. 943-691012  
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,  
20.159 Zizurkil.  
Harrera Orokorra  
Tel. 943-693066  
Kultura, Euskara, Hezkuntza,  
Gazteria y Kirola Saila  
Tel. 943692495  
Fax 943-693674.